

ARTEPEA DENON ATERPEA



Zeraingo gobernantza
sistemaren proposamenaren
aurkezpen txostena

Zerainen, 2019ko martxoaren 24an

AURKEZPENA

Zerainen azken urteotan bizi dugun gatazka, blokeo eta zatiketa egoerari buelta eman eta elkarbizitza hobean etorkizuna elkarrekin herritar guztiok eraikitzeko, proposamen hau landu dugu dozenaka herritarrek.

Herriaren funtzionamenduari, antolamenduari eta gobernantzari buruzko proposamena da honako hau. Demokrazian sakonduz eta herritar bakoitza erdigunean jarriz, gatazka egoera gainditzeko lagunduko duen eredu planteatzen da honako ezaugarri nagusiekin:

- Erabakitze eskubidea, ardura eta boterea herritar guztiek maila berean dute.
- Zuzeneko demokrazia: herritarrek dute azken hitza beti herriko erabakietan.
- Inklusiboa: herritar guztiek leku bera izateko aukera ematen duen sistema da.
- Parte hartzailea: herritarren parte hartzea ezinbesteko bihurtzen duen eredu da.

Herriko plazan, artearen aterpean aurkeztu da herritarren aurrean eredu hau. Aurkezpenerako erabilitako dokumentua txosten honetan jasotzen da. Horrez gain, sistema aplikatuz hainbat adibide edo kasu nolakoak liratekeen azaltzen da, eta modu grafikoan ere, sistemaren ezaugarri nagusiak eta funtzionamendua agertzen dira.

Edozein modutan, proposamena irekia da, eztabaidatzeko eta hobetzeko irekia. Baina zalantzarik gabe, uste dugu etorkizun hobea demokrazian sakonduz bakarrik izango dugula Zerainen. Eta horretarako, gustatuko litzaiguke datozen Legealdietan eredu honekin esperimentatzea gure herrian. Ea denon artean posible egiten dugun!

Artepea denon aterpea

Plazako aurkezpeneko dokumentua.

2019ko martxoaren 24a



Egun on, denoi!

Herriko plazan, artepe honetan, elkartu gara gaur, herritarren aurrean azken hilabete eta urteetan lantzen joan garen proposamen bat plazaratzeko.

Euskal Herriko historian zuhaitzek esanahi eta sinbolismo handia dute, eta baita Zerainen ere plazako arte eder honek. Herriko erdigune eta sinbolo da aldi berean. Hamarkadetan zehar bileragune, festagune eta herritar denen aterpe izan dena. Eta hain zuzen horregatik, gaur, hemen elkartu gara.

Denok dakigun moduan, azken urteotan herrian zatiketa, gatazka eta blokeo egoera bizi dugu. Bakoitzak horri buruzko bere irakurketa egingo du, eta ez da gure asmoa zergatietan eta pertsonen arteko gorabeheretan sartzea. Baizik eta aurrera begira, gatazka eta blokeo egoera hau gainditu, eta herri bateraturantz itzultzeko bide posible bat proposatzea. Zeren gauza bat argi daukagu: **zulo honetatik irten nahi dugu zeraindar gehienok**. Eta horretarako bide posible bat partekatu nahi dugu gaur, hemen, guztion plazan, denon artearen azpian.

1. Demokrazian sakontzea da bidea

Gure ustez, Zerainen dugun blokeo eta gatazka egoera gainditzeko eta herri-proiektu bateratu bat egiteko bide bakarra **demokrazian sakontzea da**. Guk proposatzen dugun herriko funtzionamendu eta gobernantza eredia horretara doa: **herritar guztiak ardura eta eskubide berberetan jartzen duen demokrazia zuzeneko eredia delako; parte hartzailea eta inklusiboa**.

Azken lau urteotan prozesu, eztabaida, jardunaldi eta lanketa asko egon dira herrian zer gertatu zaigun ulertzeko, gatazkaren muina non dagoen identifikatzeko eta irtenbideak lantzeko. Horietako azkena Udalak deitutako elkarbizitza hobetzeko prozesua bera izan zen. Handik adostasunik atera ez bazen ere, prozesuarekin jarraitu genuen parte hartu genuen gehienok, prozesuan zehar landutako bideetatik. Eta hilabetetako lanketa, bilera, eztabaida eta parte hartze zabalaren ondoren (guztira herriko 70 lagunek baino gehiagok parte hartu dugu eta kanpoko beste dozenatik gora pertsona aditurekin kontrasteak egin dira), gaur aurkezten dugun honetara iritsi

gara: **Zeraingo herri gobernantza sistema demokratiko, parte hartzaile eta inklusibora**; guztiok lekua izango dugun herriko funtzionamendu sistemara.

2. Sistemaren abiapuntuko oinarriak eta printzipioak

Gure ustez, herri bakoitzak berari dagozkion esparruetan **erabakitzeko eskubidea eta soberania du**. Ondorioz, herri bakoitzari dagokio bere herrigintza sistema nola antolatu behar den diseinatzea eta erabakitzea. Horren baitan, herriko erakunde publikoa, gainontzeko herrigintzako eragileak eta herritarrak nola antolatu eta erlazionatu behar diren definitu behar da.

Legedi orokorrak funtzionamendurako gutxieneko baldintzak ezartzen ditu (udal administrazioa, hauteskunde legea, eskumenak, etab.), baina herri bakoitzak eskubidea du horiez gain antolatu nahi dituen moduen bitartez, berari dagozkion gauzei buruz erabakitzeko. Horregatik, **hau bezalako gobernantza sistema ez dator beste ezer ordezkatzera, baizik eta sakontzera eta indartzera, Zeraingo herriaren eskubideak handituz herritarren ongizatea ere hobetu daitekeela sinetsita.**

Abiapuntu horretatik hasita, honako printzipioak ditu proposatzen dugun sistemak:

- Herritar guztiok dute Zerainen ERABAKITZEKO ESKUBIDEA.
- Denek ardura eta betebeharrak berberak dituzte herrigintzan.
- Demokrazia: ahalik eta sakonena eta zuzenena izan behar da.
- Parte hartzea: ahalik eta handiena sustatu behar da.
- Denek lekua duten sistema integratzailea izan behar da.
- Herri proiektua norbere interesen gainetik egotea bermatu behar du.
- Elkarbizitzarako oinarrizko errespetua eta zintzotasuna indartzeko ditu.
- Udala eta gainerako erakundeak herri proiektua garatzeko herritarren TRESNAK dira.

Printzipio horietan oinarrituta, antolatzen da aurkezten ari garen sistema hau.

3. Herriko botere banaketa eta organo nagusiak

Herriari dagozkion erabakietan Zeraingo herria da soberania gorena duena, eta horregatik, Zerainen soberania zeraindarren esku dago. Horren ondorioz, **zeraindar guztiok eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte Zeraini dagozkien gaien erabakietan**. Hori horrela izanik:

- Zeraindarren **botere organo gorena HERRI BILERA da**. Herri bilera da herriko gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko herritar guztiok duten organo nagusia. Ondorioz herri bileraren eskumenak dira:

- Herriko gobernantza eredua: nola funtzionatu behar duen herriak.
- Erabakiak nola hartu behar diren erabakitzea.
- Gatazkaren bat baldin badago, eztabaidaren bitartez irtenbideak bilatzea.
- **UDALAK eginkizun administratiboa du** eta legeak ezarritako eskumen eta mugen barruan, **herritar soberanoek erabakitakoa kudeatzeko herritarren tresna** da. Udalaren erabakitzeke eskubidea herritarren eta herri bileraren menpe daude.

Herri bileraren eta Udalaren botere banaketa, eskumenak eta eginkizunak horiek izanik, gobernantza sistema bera ere aukeratzea sistemaren parte da:

- Lau urtez behin, eta udalaren aukeraketa garaiaren testuinguruan, herritarrek soberania gauzatuz erabakitzen dute zer nola antolatzen jarraitu nahi duten. Udal hauteskunderen aurretik, herri bileran landuko da gaia eta ezarritako bideen bitartez, herritarrek erabakiko dute gobernantza sistema (edo beronen aldaketak).
- Udalaren aukeraketa eta gainontzeko guztia, herri bileran hartutako erabakiaren menpeko izango dira.
- Herri bilerak erabakiko du zer-nola banatuko diren Udalaren, komisioren, elkarten edo bestelako talde eta eragileen artean herrigintzako funtzioak.
- Herritar guztien eskubidea eta betebeharra izango da antolaketa horretan aukera berdintasunez parte hartu ahal izatea.

Hortaz, eta **laburbilduz, herritar berdinean eta askeen herrigintzako botere eta eztabaidagune nagusia herri bilera da**; eta herri bileraren erabakien bitartez antolatzen da bai Udala eta bai gainontzeko guztia.

4. Funtzionamendurako antolaketa posiblea

Gobernantza sistema hau aplikatuz irudikatzen dugun herriko funtzionamendu posible bat, betiere herri bilerak ontzat eman beharko lukeena, honakoa izan daiteke:

UDALA: zerbitzu publikoen, azpiegituren eta administrazioaren arduraduna da. Betiere, herrigintzarako tresna nagusia da eta herritarrek erabakitakoaren menpe dago:

- Alderdirik gabe eta zuzenean aukeratzeko sistemarekin antolatua (zuzeneko zerrenda).
- Batzordeetan antolatua:
 - Zein komisioren eta nola antolatu herri bilerak erabakiko du legealdi bakoitzean.

- Batzordeak irekiak izango dira herritar guztientzat.
- Lan-talde funtzionalak dira, **gaiak landu, erabaki eta gauzatzeko eskubidea eta betebeharra dute.**
- Batzordeek erabakitzeko eskubidea dute.
- Batzorde bakoitzaren baitan lan-talde ezberdinak sor daitezke batzordeak hala erabakitzen badu.
- Udaleko zinegotziak herri bileren eta komisioren ordezkari dira. Eta komisioren edo herri bileran landu edo erabaki ezin direnak bakarrik erabaki dezakete.
- Udaleko zinegotzien egiteko nagusia prozesu administratiboen eta komisiotako lanketen arteko koordinazioa egitea da.

HERRIKO ELKARTEAK: Herrian jada antolatuta dauden elkarte eta talde ezberdinek herrigintzako sistema honen baitan kokatu nahi badute, zer nolako lekua eduki herri bilerak erabakiko du gobernantza sistema onartzerakoan. Gainontzean, noski, erabat libre dira nahi duten bidea egiteko, baina batzordeetan parte hartzea norbanakoen izenean izango da, eta ez eratutako elkarte edo taldeen izenean.

HERRIZ KANPOKO ORDEZKARITZA: Udalerriak herritik kanpo dagokion eremu eta gune ezberdinetan duen ordezkari sistema honela antolatuko da:

- Ofiziala denean udal ordezkariak joan beharko dute.
- Ofiziala ez denean, batzordeetako, edo beste organoetan aukeratutako edozein pertsona joan daiteke.

Hauek horrela, proposatzen den antolaketa eredu posible honetan, hiru esparru edo organo nagusi dituzte herritarrek: herri bilera, Udala eta batzordeak. Guztietan, **herritar guztiek erabakitzeko eskubide berbera dute.**

5. Erabakiak nola hartu behar diren

Sistema honen zutabe nagusia zera da: **Herritar guztiek erabaki guztietan aukera, eskubide eta betebeharrak berdina dituzte.** Hori bermatzeko, honako ezaugarriak ezartzen dira:

- Sistemaren leku eta organo guztietan, gutxienez legediak ahalbidetzen duen adina eskubide izango dute herritar guztiek. Prozesu eta gune guztietan, **sistema gutxienez legedia bezain garantista izango da.**
- Erabaki guztiak **herri bileratik pasa eta han onartu beharko dira aurrekontuaren %10 baino gehiago edo hurrengo gutxienez 2 urte baino gehiago baldintzatzen baditu erabakiak.** (Adibidez, batzorde batek har ditzakeen erabakiak mugatuta egongo dira bi baldintza horiekin).

- **Adostasuna lehenetsiko da gune guztietan**, eta adostasunik ezean honako irizpideak hartuko dira:
 - Hurrenkeran hurrengo organora eramango da:
 - Lan taldetik batzordera
 - Batzordeetatik herri bilerara
 - Herri bilera da erabakiguneko organo gorena
 - Herri bileran adostasunik ez dagoenean:
 - Gehiengoz hartuko da erabakia
 - Baina, herri bileraren herena nahikoa izango da herri galdeketa deitzeko
 - Herri galdeketa deitzeko eskubidea herri bilerak izango du
- **Herri galdeketa lotesleak** deitzeko irizpideak:
 - Herri bileraren gutxienez heren batek eskatzea
 - Hurrengo gutxienez 4 urteak baldintzatuko dituen erabaki inportantea izatea.
 - Aurrekontuaren %20 baino gehiagoko proiektua izatea.

Hauek horrela, **beti azken hitza herritarrek izango dute, bai batzordeetan, bai herri bileran edo bai herri galdeketen bitartez**. Udaleko ordezkariak ez dute erabakitzeko eskubide gehiago izango beste herritar guztiek baino.

6. Aurrera begira: etorkizuneko apustua

Gaur aurkezten dugun gobernantzako herri antolamendurako sistema edo modelo hau ez da ezerezetik irten. Auzolaneko tradizioetik abiatuta, eta Zerainen hamarkadetan zehar garatutako herrigintzako funtzionamendu sistema kontuan hartuta egin da; eta gatazka edo krisi egoerek gauzak hobetzeko sortzen duten indarrak lagunduta. Proposamena irekia da, hobetzeko asko izango du ziurrenik, baina uste dugu **Zerainen bizi dugun gatazka, zatiketa eta blokeo egoera gainditzeko bide bakarra demokrazian sakontzea** dela.

Gaur aurkezten dugun sistema honek, zer eskaintzen du horretarako? Laburbilduz:

- **Herritar guztiek** herriari dagozkion gaietan **erabakitzeko eskubide eta betebeharrak berbera dute**.
- Sistemak **zuzeneko demokrazian** sakontzen du, **herritar bakoitza erdigunean** jartzen du, **parte hartzea** beharrezko egiten du eta **inklusiboa** da.
- **Udala herrigintzarako eta herritarren menpeko tresna** bihurtzen da; Udala eta udal ordezkariak boterez "husten" dira herritar bakoitzak botere eta ardura gehiago izateko.

Hilabete askotako pertsona askoren inplikazio, lan eta eztabaida ugariren ondorio da gaur aurkezten duguna. Herriko etorkizun hobearen bila egindako saiakera zintzo baten ondoriozko emaitza da eredu hau da. Momentu honetan, **udal hauteskundeetarako bi hilabete falta direnean, zeraindar guztiei bi dei** egin nahi dizkizuegu:

- 1. Herritar bakoitzak dugun erabakitzeko eskubide eta ardurari heldu eta Zerainen etorkizuna elkarbizitza hobean lantzeko pausuak emateko.**
- 2. Eredu hau hurrengo Legealdian Zerainen funtzionamenduan martxan jar dadin lan egiteko.**

Gure aldetik saiatuko gara eredu hau (ahal den guztia hobetuta denon artean) datozen urteetan Zerainen martxan egon dadin; horretarako herri zerrenda bateratzaile eta integratzaile bat maizteko hauteskundeetan egotea posible bada, are hobeto. Izan ere, **artepe honetan denontzat berriro aterpea egiten asmatzen ez badugu, alferrik izango ditugu zuhaitz, plaza eta herri ederrak.**

Gure proposamena horretarako da. Hemendik aurrera, gurea adina da zurea ere. Denontzat daukagu lekua Zeraingo artepe eder honetan!



Zerainen, 2019ko martxoaren 24an.

Zeraingo gobernantza sistema proposamena

Auzolaneko funtzionamendu demokratiko, inklusiboa eta partehartzailea

Auzolaneko tradizioetik abiatuta, eta Zerainen hamarkadetan zehar garatutako herrigintzako funtzionamendu sistema kontuan hartuta, herri gobernantzako sistema proposamena da honakoa.

zertarako?

governantza sistema proposamen hau ez dator beste ezer ordezkatzera, baizik eta sakontzera eta indartzera, Zeraingo herriaren eskubideak handituz herritarren ongizatea ere hobetu daitekeela sinetsita.

- Herritar guztiak dute Zerainen ERABAKITZEKO ESKUBIDEA
- Denek ardura eta betebeharrak berberak dituzte herrigintzan
- Demokrazia: ahalik eta sakonena eta zuzenena
- Parte hartzea: ahalik handiena
- Denek lekua duten sistema izan behar da.
- Herri proiektua norbere interesen ginetik
- Elkarbizitzarako oinarritzko errespetua eta zintzotasuna
- Udala eta gainerako erakundeak herri proiektua garatzeko herritarren TRESNAK dira

Abiapuntuak

Etorkizunean gurea bezalako komunitate txiki bateko kideen ongizaterako egokiena izateko asmoz

Zerainen soberania zeraindarren esku dago

zeraindar guztiak eskubide eta betebeharrak berdinak dituzte Zeraini dagozkien gaien erabakietan

Herri bilera da herriko gaiei buruz eztabaidatzeko eta erabakitzeko herritar guztiak duten organo nagusia

UDALAK

Eginkizun administratiboa du eta legeak ezarritako eskumen eta mugen barruan, herritar soberanoek erabakitakoa kudeatzeko herritarren tresna dira. Udalaren erabakitze eskubidea herritarren eta herri bileraren menpe daude.

ADIBIDE EDO KASU PRAKTIKOAK

Proposatutako herriko funtzionatzeko moduan, nola landuko eta erabakiko lirateke ondorengo kasuak?

1. KASUA: BASERRI BIDEAK KONPONTZEA

Nork eta nola erabaki behar dute zein baserri bide konpondu behar diren?

- Dagokion batzordean landuko dute gaia hala nahi duten guztiek eta herritar denek eraman ahalko dituzte hara konponketa beharrea ikusten dituzten bideen proposamenak. Lanketa horren ondorioz priorizatuko dira egin beharreko bide konpontzeak eta horretarako zein errekurtsio dauden.
- Batzordean adostasuna badago eta aurrekontuaren %10 ez badute lanen kostuek gainditzen, aurrera eramango dute erabakia batzordean parte hartzen dutenek. Aurrera eramateko ardura batzordeko kideena izango da eta gai horretarako dagoen udal ordezkariak Udaleko prozesu administratiboa egiteko ardura izango du.
- Batzordean adostasunik ez badago edo eta, aurrekontuaren %10 gainditzen badute batzordean urte horretarako planteatutako bide konponketek, herri bilerara eraman beharko da gaia eta han erabaki.

2. KASUA: HERRIKO GAZTEEK KONTZERTU EMANALDI BATZUK ANTOLATZEA

Nola egingo da kontzertu horiek antolatzeko eta nork erabakiko du?

- Dagokion batzordean planteatuko dute gazteek zein kontzertu emanaldi egin nahi dituzten. Batzorde horretan landuko dute gaia eta banatuko dituzte aurrera eraman ahal izateko lanak, ardurak eta eginkizunak.
- Batzordean adostasuna badago eta aurrekontuaren %10 ez badute kontzertuen kostuek gainditzen, aurrera emanago dute kontzertuen antolaketa.
- Batzordean adostasunik ez badago edo eta, aurrekontuaren %10 gainditzen badute batzordean urte horretarako planteatutako bide konponketek, herri bilerara eraman beharko da gaia eta han erabaki.

3. KASUA: ETXEBIZITZAK ERAIKITZEA

Nola erabakiko litzateke zein etxebizitza mota, non eta nola eraiki? Eta nork erabakiko luke?

- Gaia eta aukera ezberdinak (diru laguntzak, etxebizitza motak, ereduak, aukerak, etab.) dagokion batzordean landuko lirateke.
- Gaiaren inportantzia eta diru nahiz denbora aldetik dituen eraginak kontuan hartuta, herri bilerara eramango litzateke gaia eztabaidatzeko.
- Herri bileran eztabaidatu ostean adostasuna egon edo ez, herri galdeketara eramango lirateke aukera ezberdinak, eragina urteko aurrekontuaren %20 eta 4 urtekoa baino handiagoa delako.
- Herri galdeketa erabakitakoa aurrera eramateko ardura izango lukete etxebizitzak lantzeko lan batzordeak eta Udalak.
- Hortaz, halako gai garrantzitsu bat eztabaidatzeko espazioak batzordea eta herri bilera izango lirateke, eta erabakitzeko herri galdeketa. Baina sekula ez luke ez Udalak eta ez udal ordezkariak beste herritarrek baino pisu edo botere handiagoa izango erabakian.

4. KASUA: SASIETAN, PARTZONERIAN ETA ABARRETAN ZEIN POSIZIO DEFENDATU

Herritik kanpoko ordezkariak instituzionaleko guneetan zein posizio eta jarrera hartu beharko lukete udal ordezkari ofizialek?

- Udal ordezkariak herriaren eta herritarren ordezkari direnez, ez dute beren iritzia eramango, baizik eta herriko sistemaren baitan erabakitzen dena.
- Erakunde horietako gaien batzorde ezberdinetan landuko dira, eta ondoren herri bileran eztabaidatu. Han egoki ikusten bada, edo eta heren batek eskatzen badu, herri galdeketa deituko da aukera ezberdinekin.
- Herri bileran edo herri galdeketa erabakitakoa defendatuko dute udal ordezkariak Partzonerian, Sasietan edo dena delako herriz kanpoko erakundeetan.

5. edo 1000. KASUA: JARRI NAHI DUZUN HERRIKO GAIA...

Eta nola erabakiko litzateke? Nork erabakiko luke?

- Lan batzordeetan, herri bileran edo herri galdeketa.
- Herritar guztiek, maila berean eta ardura berarekin.

ZUK erabakiko duzu BETI!

ZERAINGO GOBERNANTZA SISTEMA

Proposamena

HERRI GALDEKETA



* Erabakiak hartzeko:

- adostasunik ezean goragoko organora
- herri-bileran adostasunik ezean, herena nahikoa galdeketa eskatzeko
- galdeketa loteslea

* Aurrekontuaren %10 edo 2 urteko eragina badu: herri bilerara

HERRI BATZARRA
Organo Gorena*




ANTOLAKUNTZA
INSTITUZIONALA



KOMISIOAK

Edukiak landu,
erabaki eta
aurrera eraman*



Herriaz
kanpoko
ordezkaritza

